

M-49246
F-49226

ATV
29382

LOPEZ-MENDIZABAL'DAR' IXAKA

XABIE RTXO

*Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko
idaztia.*

TXIKI'ren edetgariakin.

EUSKALERIAREN ALDE'k
1923'g. urtean saritu, ta EUSKO-
IKASKUNTZA'k ageferazten duan
idaztia.

OXFORD





JAUNGOIKOA

Jaungoikoa da gauz guztien egilea.

Berak egin ditu Ludia, Eguzkia, Ilargia eta izañ guziak.

Berak egiñak dira Ludi ontako lur, ibai, mendi, itxaso, belar, zuaitz, txori, abere eta ikusten degun guztia.

Berak egin gaitu gu, onak izan gaitzen, gero, il ondoren, betiko zoriona izan dezagun.

Berari zoñ diogu bizia eta degun guztia.

Jainkoa biotzez maitatu bear degu.

XABIÉTXO

Emen agertzen dan mutiltxo au Xabiétxo da.



—Egun on, amaxo. Egun on, aita.

—Egun on, Xabiétxo.

Jekitzerakoan egun onak eman bea' dira.

Bere aita eta ama asko maite ditu.

Izia'rtxo bere afebak, asko maite du, Xabiétxo oso ona dalako.

Seme ona gurasoen poza izaten da. Ume onak ez dira beñere alka'ren artean

asa'etzen.

Jainkoak ez du nai iñori kalte egi-terik.

Jainkoak nai du guziok alka' maite izatea, guziok anayak geralako.

IZIAR TXO

Emen aurrean daukazuten au Iziar txo da.

Xabier txo bere anayak bezela, jeki ta bereala *Aita gurea* eta *Agur Maria* esango ditu Jainkoari eskerak emanaz.

Oeratzean ere beti otoi egiten du.


Jainkoari eskatzen dio lo dagoanean zaindu dezala.

Eta etxeko guziaz osasuna eman dezayela.

Iziar txo oso biotz onekoa da. Ixila, zintzoa ta garbia. Bere gurasoak asko maite dute. Bere amari etxea txukuntzen laguntzen dio.

Beñere gezurik ez du esaten.

Ez da beñere gezurik esan bear.



GARBITASUNA.

Xabierxo'k ikastolara joan baño lenago arpegia eta eskuak urez ongi garbitzen ditu; baita ilea oraztu eta jantziari autsa kendu ere.

Bazkaldu baño len beti eskuak garbitzen ditu eta bazkal-ondoan aboa urez garbitzen du. Amak erakutsi dio ortz eta agiñak sendoak eta luzaroan izateko aboa garbitzea dala onena.

Garbitasuna osasuna da. Izan gaitetzen garbiak.

IKASTOLARA.

Xabierxo'k ikastolara joan baño lenago bere aita eta amari agur egiten die eta bere arreba Izierxo'rekin etxetik ateratzen da.

Bidean ez dira inun gelditzen.

Ikastolara joan gabe bidean lagun gaiztoakin biltzen danak ez du beñere gauz onik ikasiko.

Xabiértxo'k egun onak ematen dizkio Irakasleari eta gero onek esandako guzia ongi entzuten du. Onela laister Xabiértxo mutil guzietan geyenta jakingo duena izango da.

IKASTOLAKO ATEAN

Ikastolako atean bere lagun bat arkitzen du.

—Nora oa?

—Ikastolara.

—Goazemak alkarékin zibetan jolastera?

—Ez, ikastolara joan nai diat. Joaten ez ba-gaituk ez diagu ezer ikasiko.

Xabiértxo'k ikasteko gogoa du.

Xabiértxo mutil on bat izango da.

IRAKURTZEA BEAÑA DA



Xabier'xo'k irakurtzen ikasi du.
Martin'ek, alpeña dalako, ez du irakurtzen ikasi nai.

Beste lagun guziak bereala ikasi zuten. Eta irakurtzen zituzten gauz politikak: *Manu Zo'gin* ta *Baso-jaunaren* edestiak. Eta pozez aritzen ziran aek irakuriaz.

Martin, beriz, beti asper'uta egoten zan.

—Ik ere ikasi zak eta gauz politik jakingo dituk—esan zion Xabier'ek.

Eta Martin'ek irakurtzen ikasi zuen. Etzayo, ez, damutu.

Ez jakiña eruka'ri da.

+

GIZABIDEA

Gizabideak erakusten dizkigu zer er-
atan gizartean ibili bear degun

Umeak elizan dagoanean, ez du ibili
bear batetik bestera, itz egiñaz eta
atzera begiratuaz. Jainkoaren etxean
dago eta ixil eta apal egon bear du.

Etxean eta ikastolan ere istilu gabe
egon ta ibili bear luke. Ume gaizki
eziak beti itz egiñaz eta beti deadaarka
ibiltzen dira.

Etxean beti burutzik egon bear da.

Mayean ezagutzen da ondoen umea
ongi ezia dagoan ala ez. Agintzen dio-
ten tokian jariko da eta ez da jaten
asiko besteak asi artean. Aboan jana
daukanean ez du urik artuko eta edan-
-aurretik eta atzetik ezpañak ezpain-za-
piz garbituko ditu.

Ume ondo ezia, nunai ondo ikusia
izango da.

GIZONA

Gizona Jainkoak luñ piska batez egin zuen.

Eta Bere antzera egin zuelako gizonaren soña ariagaría ba-da, bere adimena oraindik ere ariagaríagoa da.

Onetsi dezagun Jainkoa, soñtu gaituelako.

GIZA-SOÑA

Gizonaren soñak iru zati ditu: Burua, Soin-enboña eta Soin-adañak.


Buruan dauzkagu *begiak*, gauzak ikusteko; *belañiak*, otsak entzuteko; eta *sudura*, usayak usaintzeko.

Aboan dauzkagu *ortzak* eta *agiñak*, janariak puskatzeko, eta *mingaña*; onen bidez itz egiten degu.

Buruan dauzkagu ere *muñak*.

Burua da gure soñaren zatirik nagusia.

SOIN-ENBOÑA



Soin-enbofak bi zati ditu: *bulaña* ta *sabela*.

Bulañean ditugu bi aldetara *birikak*. Oen bidez arnasa ar-tzen degu.

Beren artean *biotza* dago. Biotzak ibil-azten du gure zañetan odola, eta beti, gelditu gabe, lanean ari da gu bizi gaitzen.

Sabelean dauzkagu *urđala*, *gibela*, *giltzuñinak* eta *esteak*.

Soña zutik egon dedin atzean degu *bizkañ-ezuña*.

Urdalean, batez ere, janariak txetzen dira.

Azteko jan egin bear da.

Bañan geyegi jatea kaltegarri da.

SOIN-ADAÑAK.

Soñeko garaikaldian *besoak* dauzkagu. Beso bakoitzak ditu zati oek: sorbalda, besondoa, besagaña, esku-muturra eta eskua.

Esku bakoitzean bost beatz ditugu.

Azpiko soin-adañ bakoitzean dauzkagu istaña, belautana, aztala, txonkatiña eta oña.

Eskuak gauzak artzeko dira eta oñak soña zutik euki eta ibiltzeko.

IKUSMENA



Begien bidez ikusten degu.

Begiak ditugulako ikusten ditugu gure aita, gure ama, gure anayak, gure arrebak; ikusten ditugu ere mendiak, zelayak, itsasoa, eguzkia eta izañak.

Begiak esaten digute gauzak zuriak, beltzak, urdiñak edo goñiak diran ta

baita ere gauz oek uruti ala bertan dauden.

Begiak estaltzeko betazalak ditugu eta beren ertzetan betileak dauzkagu.

Itxu gaxoak erukañi dira. Betiko gaubean daude. Beren eruki izan dezagun.

ENTZUMENA



Belarñien bidez entzuten ditugu itzak, oyuak, deadañ eta karaxiak. Entzuten degun guziari otsa deritzayogu.

Belarriak erakusten digute zein diran ots atsegiñak eta ots atsekabeak.

Ongi ez ba-degu entzuten ezin genezake gauzen beñi zuzen jakin. Ondo entzuteko buruak ere ernai egon beañ du.

Umeak ez ba-dute burua ernai eukitzen ez dituzte irakaslearen erakuspenak entzungo, eta onela ez dute ezer ere ikasiko. Entzun au ondo, ume maiteak.

USAIMENA



Suduñaren bidez usayak usaintzen ditugu.

Sagañaren eta lore askoren usai ederak atsegintzen gaituzte.

Zakuñak urutitik sumatzen du bere nagusia.

Suduñak esaten digu bereala aize kaltegarria nun dagoen ez dezagun berra aritu gure osasunerako txaña litzaketako.

GOZAMENA



Aboaz eta batez ere ao-sapayaren bidez gauzen gozamena eta txastamena artzen degu.

Sagar bat ikusi genezake, bere usaya usaindu genezake, bañan bere gozamena, bere txastamena artzeko bere puskatxo bat bederik aboan sartu bear degu.

Eztia gozoa da, itsasoko ura gazia, ozpiña garatza. Sagar batzuek gaziak dira, besteak gezak eta beste batzuek gazi-gezak.

IKUMENA



Eskuaren bidez gauzak ikutzen ditugu. Berak esaten digu ikutzen deguna biguña ala gogoña dan, leguna ala lakara, otza ala beroa.

Oñak ere eskuai ontan laguntzen diote. Oñak esaten digute bereala toki biguñean ala gogorean gauden, toki zakarean ala iristakofan gabilzan.

Eskua izaten da itxu gaxoaren begia.

GOGOIA

Jainkoak gizonaren sofia auts piska batez egin ondoren gogo edo anima soñtu zuen arekin bat egiaz eta berari bizia emanaz.

Gure gogoaren bidez oldoztu edo pentsatzen degu.

Gure maitetasunak, gure atsegiñak, gure atsekabeak, gauzen eta egipenen gogorapena, gure asmoak ez daude soñean, gogoan edo animan baizik.

Ajola gutxi bear liguke gure soña edera edo itsusia izateak.

Anima garbia, ona, maitatia, auxen da guziok alegindu bear gendukena izaten.

Gure anima ez da ilko soñarekin batean. Soña, beriz ere, auts biurtuko da bañan gogoak beti iraungo du ilezkofa dalako.

Izan gaitezen gorputzez garbiak, bañan animez al bada garbiagoak.

Anima on eta garbiai gure Jainkoak betiko zoriona emango die.

JANTZIA



Neguan jantzi lodiagoak erabiltzen ditugu. Jantzi beroenak artilezkoak dira. Artilea ardiaren ileaz egiña da.

Udaran jantzi ariñagoak erabiltzen dira. Eunaz eta oyalaz egiten dira gure jantzi edo soñekoak.

Abañkak dira aspalditik emen ibiltzen diran oñetakoak.

Jantziak austen diranean jostoratzaz josten dira.

Ume txukunak soñeko gutxi uratzen du.

JANARIAK



Gizonak
jaten ditu
ogia, baraz-
kiak, iga-
liak, aragia,
aranyak.

Goizetik
artzen da-

nari deitzen diogu *gosaria*, eguerdikoa-
ri *bazkaria* eta gabekoari *aparia*.

Zaldiak, beyak, astoak, ardiak belara
jaten dute.

Zakurak, legoyak, katamotzak, ara-
gizaleak dira.

Katuak araya nayago du.

Oloak aleak jaten ditu.

Txori geyenak aleak eta zomoñoak
jaten dituzte.

Geyegi fatea kaltegarri da.

Ez da beñere geyegi jan beari.

OGIA

Garia bildu ondoren igara batera,
erota batera, eramaten da.

An erotariak igotzen du auts egi-
ñaz. Auts oni iriña deritzayo.

Okiñak urtzen dute urtan iriña.

Gero legamia erasten diote.

Ondoren labean ere eta ogia egiña
gelditzen da.

OGIRIK EZ DA BEÑERE BOTA BEAR

Martin'i bere amak ogi zati bat
eman dio gañean eztiarekin.

Martin'ek eztia mizkatzen du.

Eta ogia bota egin du.

Ori gaizki egiña da.

Ez da ogirik beñere jauñti bea.

Beaitsu askok pozik artuko zuten
ogi puska ori.

EDARIAK



Edaririk onena *ura* da.
Ardoa matsaz egiña da eta *sagardoa*
sagaraz.

Beyak ematen digu *esnea*.
Esnea umientzat oso ona da.
Esneaz egiten da gazta.
Ardoak, geyegi edanezkero, kalte
aundiak ekaitzen ditu.

IZIARTXO'K BIOTZ ONA DU.

Iziartxo ikastolatik dator.
Bidean oñutsik dabilen ume gaxo
bat ikusten du.

—Atoz nerekin etxera eta oñetako
batzuek emango dizkitzut.

Etxera etofri diranean amari guzia esan dio.

Baita ere onek eman dizkio umetxoari oñetako batzuek.

Al dan guzian on egin beař da.

ESAERA ZARAK

Gauř egin dezakezuna ez biarřko utzi.

Zerořek egin dezakezuna besteri ez egin azi.

Merkea dalako beař ez dezun gauzik ez beñere erosi.

Ařokeriak diru asko eramaten digu.

Gure burua goregi jaso nayak askotan pařagari uzten gaitu.

Gutxitan damutzen zaigu gutxi jana; bařan geyegi jana, askotan.

Gogoko tokian aldapik ez.

Gauz guziak bere alde onetik ařitzazu.

Ez geyegi itzegir ez bada nai utsegin.

EREGEA TA TXIMUAK.



Erege batek tximu asko omen zituen. Dantzan egitea erakutsi-azi zien eta, soñeko ederez jantzi ondoren, berak ikustera lagun batzuei ots egin zien.

Ba-zebiltzan dantzan tximtuak, bañan ikusle aetako bati gogoratu zitzaion intxaur batzuek dantzariyai botatzea.

Berealaxe beren dantzak utziaz tximu guziak alkarren artean burukan asiziran soñekoak autsiaz ta alkarri aramazkak egiñaz intxaurak arapatzeko.

Onak erakusten digu jantzia ez dala gizona egiten duena. Eta on bezela norbaitek agertu nai ba-du gaizto izanik, azkenean gaizto bezela azalduko da.

ETXEA



Ludi edo luí ontan izan ziran lenbi-
ziko gizonak leizetan eta arkaizpetan
bizi ziran.

Gero beren txabolak egiten asi ziran.
Abere gaiztoen atzaparetan ez eror-
tzeko, txabola oek, askotan, uretan
sartutako makil gañetan egiten zituzten.

Gaurko egunean gizonak etxetan bi-
zitzen dira.

Etxe oek izaten dituzte batzuetan iru
ta lau bizitza ta baita geyago ere.

KUN-KUN



Ez nigar egin, nik emango, bai,
sagar bat ximel-ximela
amonia bezin ximura eta
goxoa bera bezela;
au janaz ondo, magaletxoan
atsegindurik aurrena,
seaskan lo lo, nere potxolo
jariko zaitut berela.

—
Ekatzu muxu
gero lo egin dezazun;
lo, lo, tira maitea,
lo, lo... kunkun kunkun....
—

Aingeru maite zoragaría
zorigaitz bat ez dezuna,
seaskan orla mugira geldiz
amets egiten dezuna;
zeñen goxoak diran zuretzat,
nere maitetxo kutuna,
amon xañaren kantuak eta
seaskatxoan kunkuna!... (E. Añese.)

ERÍA



Etxe asko alkañen bertan biltzen diranean ería egiten dute.

Eri batean ikusten ditugu kaleak edo kañikak, enparantzak, ibiltokiak, lantegiak, ostatuak eta beste gauz asko.

Eriko-etxean ería zaindu ta zuzentzen dutenak biltzen dira.

Zubiak izaten dira ibayak alde batetik bestera igarotzeko.

Eliza da Jainkoaren etxea eta ara joaten gera Berari otoi egitera.

BASERIA

Baseñian nekazaria bizi da.

Bere soroak bertan ditu eta bere basoak inguratzen dute. Mendi gañean, atsegintasunez beterik, txuri-txuri ikusten degu.

NERE ETXEA

Ikusten dezu goizean
argia asten danean
menditxo baten gañean
etxe txikitxo txuri-txuri bat
lau aitz andiren artean
ituritxo bat aldean
txakur txuri bat atean?
An bizi naiz ni pakean.

—

Naiz ez izan gaztelua
maite det nik sor-lekua
aiten aitek autatua;
etxetik kanpo zait iduritzen
nunbait naizela galdua
antxen ni bainaiz sortua
an utziko det mundua
galtzen ez ba-det zentzua.

—

Ez da luñean gizonik
ez eta ere jaun aundirik
ni bañon obeki danik;
ba-det andrea, ba-det semea
ba-det alaba ere nik
osasun ona batetik
ontasun aski bestetik
zer nayago det besterik?

(Elizanburu.)

ARGIA



Egunez ar-
gi dago.

Eguzkiak
bere argia nu-
nai zabaltzen
du.

Gabez, ilar-
girik ez da-
gonean, ilun
dago.

Eta etxe bar-
enen ere ez da
ezer ikusten.

Ortarako ar-

gia piztu beař da.

Aspaldian oliyoaz, argizayaz, lerargi

edo eretxiñaz eta aroliyoaz argia egiten zuten.

Orain tximistargi edefa eri txikienetan eta basefietan ere ikusten degu.

Gure aurrekoak ofelako argi edefa ikusi izan ba-zuten berari begira zoratuta egongo ziran.

ARGIÑA TA ZURGIÑA

Oek izan dira gizonaren lenbizikotako langintzak.

Argiñak egiten ditu etxe baten ormak. Lenbizi lurpean ormaren oña artzen du. Gero afia ariaren gañean ipiñiaz ormak jasotzen ditu.

Zurgiñak edo arotzak zura landuaz gure etxeko ate ta leyoak egiten ditu.

Berak ere egingo dizkigu alki, mai, maladi edo zurgu ta beste gauz asko.

Etxegaña ere berak egin du, gero telaz estaliaz euria bařena sartu ez dedin.



ALAITASUNA



Xabiértxo beti pozik dago.
Bere lagunakin jolasten da.
Martin, bériz, beti kopetilun dago.
Bere lagunak bakañik uzten dute.
Xabiértxo alaya da.
Ume alayak oso maitatuak izaten dira.

LANGINTZAK

Ogia egiten da okiñaren etxean.
Aragia, arategian saltzen da.
Gatza, ozpiña, lukainkak, babañu-
nak, ilańak, jangai-saltokian.

Gozokiak, gozotegian.

Ardoa, ardotegian, sagardoa sagar-dotegian.

Eunak eta oyalak, oyaldegian.

Oñetakoak, oñetakotegian.

BESTE LANGINTZAK

Beste langintz asko ere ba-dira.

Jostunak egiten dizkigu gure jantziak.
Idaztigileak, irakurtzen ditugun idaz-
tiak.

Arantzaleak, arapatzen ditu arayak.
Ikazkiñak egiten du ikatza.

Sendagileak sendatzen gaitu gaxo-
tzen geranean.

Bizargiñak bizaia kendu eta ilea
mozten du.

Nekazariak, lurak lantzen ditu.

Erementari edo burniarotzak burniaz
gauz asko egiten ditu.

Baratzazayak gure baratzak zain-
tzen dizkigu.

MENASTAK.

Burnia menasta da.

Beruna, urrea, zilara ere menastak dira.

Menastak lurpean arkitzen dira.

Gauz asko menastaz egiñak dira.

Urre, zilara ta burnigoñiz egiña da dirua.

Urrea ta zilara garestiak dira beretatik gutxi dalako.

Geyena erabiltzen dana burnia da.

MENDIAK.

Ludiaren zimurari mendiak deitzen diegu.

Mendiak dira gu bizi geran tokiaren apaingari.

Mendi oretako batzuek oso goituak dira eta beren buruak beti elur ez beteak arkitzen dira.

Ernio-menditik ere asko ikusi ditezke. Eta eguraldi garbia dagoanean, urutira itxasoa urdin-urdin ikusten da.



ABENDAK.



Gizon guziak bere
soña berdintsua
dute.

Bañan bere
lañuaren margoa ez
da berdiña.



Ludi ontan abenda asko dira.
Batzuek lañua zuria dute.



Besteak oria.
Besteak goña.
Besteak beltza.
Bañan guziok
Jainkoaren semeak
gera eta geren
artean anayak.



AZIA.

Landare guztiak beren azia ematen
dute. Azi bat lurpean sartzen ba-da
ernetzen da.

Bañan oñetarako urez busti bea da.
Eta bero egin bea du.

Udabeñian, batez ere, ernetzen dira
landareak.

Azia e ne danean, lurretik atereaz
landare egiten da.

Azi txiki-txiki batetik askotan zuaitz
aundi bat sartzen da.

ZUAITZA.



Zuaitza da lufaren jantzirik edereña.
Begira zayozute zuaitz oñi.
Bere zañak lufera josia daukate.
Bere geria goruntz jasotzen da.
Goraxeago adarñak zabaltzen ditu.
Adarñak ostoz eta lorez beteak daude.
Lore oek, gero, igali ederñak emango
dituzte.

Zuaitzak bere zañetatik janaria ar-
tzen du.

Zañak lurpean janaria artzen dute.

KABIAK.



Arbasta txikiak bat-banaka bilduaz udaberian txoriak beren kabiak egiten dituzte.

Añautzatxoak bero-beroan euki ondoren txori txikiak jayotzen dira.

Txoriak laguntza aundiak egiten dizkigute. Zomoño gaizto asko iltzen dituzte.

Abesti gozo ta politak abestuz, gure biotza atsegiñez betezen digute.

Ez egin txori gaxoai kalterik. Ez airik bota txoriai.

Ez dezazutela beren kabirik autsi.

ENARA.

Enarak gure leyo-ertz ta etxegafietan bere kabiak ipintzen ditu.

Egan dabilzala enarak zomoño gaizto asko iltzen ditu, aizea garbituaz.

Udazkenean enarak emendik alde egiten du. Toki epelagoetara joaten da.

Bañan uringo udabeñian len egin zuen kabira beriz etoriko da.

UME ERUKITSUA.

Iziañtxo'k etxeko atadian gaizki jantzitako ume bat ikusi du.

—Nun bizi zera?

—Etxerik ez det.

—Ogi puska bat jango al dezu?

—Bai eta pozik, oraindik ezer jan gabe nago-ta.

—Tori ba ogi-zati au.

—Eskafik asko.

Iziañtxo biotz-erukitsua da.

Gose danari jan emayozute.



ARTZAYA ETA ARDIAK.

—Atozte onontz laster
atozte, anayak—
deadañ egiten du
Perutxo artzayak
—otso aundi bat datoñ
mendi oyek bera,
zuzen-zuzen onera
ardiak jatera.—

Ba-dijoaz anayak
makilak arturik
belduñez geldi dedin
ardi gabetanik.
Iritxitzen dirade
lertzeko zorian,
bañan ez da ageri
otsorik mendian.

Biurturik ba-daude
geldiro etxean

orobat gertatzen da
biaramonean.

Bigarren txalmak dauzka
txit ereztaturik,
urangoan ez dute
egiten kaserik.

Orduan egiazki
otsoa jexiaz
menditik artaldera,
laister an asi zan
ardirik ederrenak
iltzen eta jaten,
eta, eruki zana,
artaldea galtzen..

Gezura esan zuen
bi bider artzayak
eta ez zioten nai
sinistu anayak.

Gezurtiak egia
baldin ba-du esaten
gezurtia dalako
etzayo sinisten.
Onela egiten du
beretzat kaltea;
On da beti egia
nonai esatea.

(Ituriaga)

URA.

Iturietako ura edateko ona da.

Iturietako urak ibayetara jeisten dira eta ibayetako urak itsasora.

Itsasoko ura gazia da.

Iturietakoa geza.

Uraren lufiñak odeyak eta lañoak egiten ditu, eta oetatik euria erortzen da.

Urik gabe ez gu, ez abere, ez belar, ez zuaitzik bizi gindezke.

Beraz, ura beak-beara da.

URAREN BEARA

Ezerk ez digu obeto egarria kentzen urak baño.

Uraz garbitzen ditugu gure soña, musua eta eskuak.

Uraz garbitzen dira gure jantziak, ontziak eta beste gauz asko.

Belarak, landareak, zuaitzak, ura beak dute ernetzeko eta azi ta beren igaliak emateko.

Iñor ezin bizi diteke urik gabe.

Argatik Jainkoak ain ugari zabaldu du.

Urik ez duten tokiak ilak bezela agertzen zaizkigu.



ZAKUÑA ETA ARAGIPUSKA.

Ibai-ondo batetik zijoala aragipuska bat aboan zeraman zakuñ batek onen eñañua urtan ikusi zuan.

Iruditu zitzayon beste au berak zera-
mana baño aundiagoa zala, eta zera-
mana utziaz urari osk egin zion, eta onela
gelditu zan ez egitazko puskarakin ez
gezufezkoarekin.

Ori gertatzen zaye askotan berea
gutxi dalako besterena ere arapatu nai
dutenai.

URA ZER ERATAN AGERTZEN ZAIGUN



Urjayotzetan
soñtzen dan
ura, iturñak
egiñaz eta
gero
mendietatik
bera jetxiaz,
latsa edo



ereketan biltzen da.

Lats edo erēka oetako batzuek al-
kartuaz ur asko biltzen dute, eta oni
ibaya deritzayo.

Urak bilduta gelditzen diran tokiyai
aintzirak edo zingirak deitzen zaye.

Ibayetako urak itsasora joaten dira, eta
ala ere ez du onek beñere gañez egiten.

Gero itsasotik aterako dan luññak
odeyak soñtuko ditu; odehyak euria
egingo dute; euritik iturñak soñtuko di-
ra; iturñetatik ibayak, eta



ibayak beñiz
ere itsasora
biurñtuko dira
Jainkoak
emandako
bideak
ibiliaz.





EGAZTIAK

Jainkoak egin zituen egaztiak egan ibili zitezzen.

Aidean dute beren bizitokia eta an ibiltzen dira gora ta bera arin ta bizkoř.

Beren kabietan arautzak jatřzen dituzte oetatik beren txitoak ateratzeko.

Egaztiak era askotakoak dira. Txepetxa oso txikia da eta aranoa aundi ta indartsua.

Goizaldean, eguna asten danean, txoritxoak abesten aritzen dira Jainkoari eskerak emanaz bezela. Beren txořotxio ta txiruliruak atsagiñez betetzen gaituzte.

ESAERA ZAÑAK

Urak dakafena, urak darama.
Ur aundietan, añai aundiak.
Urte euritsu, urte ogitsu.
Urte eluritsu, urte garitsu.
Txori bakoitzari, edeñ bere kabia.
Olo ibilkari, azarien janari.

UREZKO AÑAUTZAK EGITEN ZITUEN OLOA


Nekazari batek urte guzian urezko añautzak jartzen zuen olo bat omen zuan.

Bañan gizon ura oso diruzalea zan eta ezin itxoegiñaz bat-banaka oloak jartzen zituen añautzai, iltzea bururatu zitzaion ure guztia batean arapatzeko.

Il zuen bada oloa eta gizon aiek ikusi zuen olo ura bañendik bestien berdina zala eta bafenen batere urerik etzuela.

Gizon diruzale ura gelditu zan ez olo eta ez ure.

AĀRAYAK



AĀrayak urpean bizi dira eta urpean
arnasa aĀtzen dute.

Uretatik ateratzen ba-ditugu bereala
iltzen dira.

Itsasoan softzen diran aĀrayai ur ga-
ziko aĀrayak deitzen zaye eta oen aĀ-
tean daude txardiĀa, legatza, bakalĀoa.

Besteak ur gezakoak dira eta oetan
amoĀaya oso ezaguna da.

Beste batzuek beĀiz urgazia ta ur
geza biltzen dan tokian bizi izaten dira,
izokia bezela.

ETXEKO ABERE TA PIZTIAK



Gure etxetan izaten ditugun abereak laguntza aundiak egiten dizkigute.

Beyak bere esnea ematen digu.

Zaldiak, astoak eta idiak beren indararak, gauzak eta gurdiak eramateko eta lurak lantzeko.

Ardiak bere ilea ematen digu. Oloak bere arautzak. Katuak saguak arapatzen ditu.

Eta zakurak etxea zaintzen digu, gizonaren lagunik onena bezela bere alde lan egiaz.

Katua oso etxezalea izaten da eta sukaldeko beroan luzaro ikusiko dezute aragi edo arai puska bat noiz arapatuko duen zai.

Zakura eta katua geyenetan asare izaten dira. Bañan zitalak ez diranean lagun bezela agertzen zaizkigu.

Adizkide izateko, gogo ona izatea naikoa da.

TXITXAÑA ETA TXINGURIA

Iduritzen zitzayon
urikigarria
txitxañari auzoan
zuen txinguria,
ikusten zuelako
leztutzen lanean
eguna pixkatxo bat
ondutzen zanean.
Askotan esan zion,
ez iriz, benetan:
ez diat lanik egin
nere egunetan,
eta uste diat nik,
nere mutikoa,
lan egiten duena

dala txit astoa.
Zer ibili beaŕ dek
beti aŕastaka,
ezin gari ale bat
kaŕayaturikan.
Etoŕi eta jeiki
beti jira-bira,
eramateagatik
ale bat kabira?
Bizi modu txaŕ ori
utzak txinguŕia,
egin zak nik egiten
deraden guzia.—
Txinguŕiak jakiñaz
gurasoetatik
ezin biziko zala
egin gabe lanik
txitxaŕaren esanik
etzuen aditu
eta bere lanari
oi zuen jaŕaitu.
Bitarŕtean txitxaŕak
zuan igarotzen
uda guzti-guztia
sasian kantatzen;
baña gaizki jo zion
soñua kukuak,
uda joan eta zuen

atzeman neguak,
eta bai-duelako
kopet itsusia
joan ziran txitxañ kanta
eta erausia,
eta buruturikan
udako asea
otzak ekañi zuen
berekín gosea.
Txitxaña gelditu zan
argala, ixila,
este zimurñuakin
eta erdi ila.
Oroitzen da auzoan
ba-dala zer jana,
dijoa arastaka
txingurñagana.
Eta esaten dio
doi-doya argalez:
—Adizkidea, dizut
eskatzen eskañez
zure gordaidutikan
pixkatxo bat zer jan
nolabait negu beltz au
igaro dezadan.—
Ikusi zuenean
ain argal txitxaña,
txingurñiak, egñiaz

gogotikan para,
—Ara!—esaten dio—
zu onontz txitxara?
Kantari ona zera
beargile txara.
Uda igaro dezū
erausian, kantan,
ni nebilen artean
leitzen lan eta lan.
Eta orain nai dezū
txinguri nekeak
bete ditzaten txitxar
alperen esteak?
Ez, ez orrelakorik,
on da ikustea
zer dan mundu onetan
alper izatea.
Ni len nekatu eta
ba-noa jatera;
zu geldi egon zera,
zoaz kantatzera.—

—
Lagundu bear zayo
beargileari,
ez ordea beñere
alpera danari.

(Ituriaga)

ERLEAK

Batetik bestera, loretik-lore dijoan elbi antzeko ori erlea da.

Lan eta lan beti ari da egun guzian bere eztenaz loretatik atera duen guna bere abaraskara eramaten.

Abaraska oek, berak egindako argizayaz egiñak dira.

Beren txulo txikietan lorien gunaz egindako ezta gordetzen du.

Erle artean lan egin nai ez duen bat-edo-bat soñtzen ba-da bereala iltzen dute.

Alpeñak ba-dute nun ikasi erlien lanak begiratuaz.

BI GOLDEAK



Bi golde salgai zeuden. Nekazari bateg aetako bat erosi zuen. Bestea saldugabe zoko batean gelditu zan.

Bere etxera lenbizikoa eramán bezin laster, iriyai erantsi zien bereala lurak goldetzeko.

Eta antxen egunero lan egiñaz garbi eta beria bezela arkitzen zan.

Bestea, beriz, saldutokian geldi egonaz erdoyez bete zan guzia alpeñik galduaz.

Onak erakusten digu geldi egoteak eta alpeñkeriak lan egiteak baño kalte geyago egiten duela.

MUTIL ZINTZOA

Xabiertxo'k kalean ziba bat arkitu du.
Bere Irakasleari ematen dio.

—Nik uste det—esaten dio—ziba ori Andoni'rena dala.

—Galde zayozu berari.

Xabiertxo'k ziba ematen dio Andoni'ri.

Andoni oso pozik gelditzen da.

Xabiertxo ere bai, gauz on bat egin dualalako.

Ez degu besteren gauzik beñere guretu bea.

EZ DA ASARETU BEAR

—Ama, gauñ goizean kalean bi mutil asaretu dira.

—Gaizki egiña.

—Eta ni joan naiz berengana eta ez dala asaretu bear esan diet.

—Ederki esana.

—Eta orduan adizkidetu egin dira.

—Xabiertxo, tori sagar au gauz eder bat egin dezulako.

—Ama, beste bat ematen ba-didazu, bi mutil ayei bana emango diet, lengo aserea aztu dezaten.

ABEREEEN KARAXI TA OTSAK

Txakurak zaunka egiten du.

Katuak miauka.

Zaldiak irintzika.

Astoak arantzaka.

Oloak karanka.

Txoriak txioka.

Olarak kukurukuka.

Ardiak beeka.

Beyak muuka.



ADIZKIDE BI ETA ARTZA

Adizkide andi bi
dijoaz bidean
elkarëkin izketan
alaitasunean:
artz aundi bat zayote
basotik irtetzen;
ikaraz arbolara
bata da igotzen,
bestea gelditzen da
gaxoa bakañik
artz andiari ezin
arpegi emanik.
Zer egin onelako
estufasunean?
Ila ba'litz bezela
jaitzen da luëean:
artzak ez duelako
gorputz ilik jaten

usai egin ondoren
da auñera joaten.
Bereala jatxitzen
da arbolakoa
eta lagunagana
laixteñka dijoa:
—Adizkidea, dio,
txit det nik atsegin
zu emen arkitzea
osasunarekin;
zer ikarak ditudan
zugatik eramán
belduñez zu noiz arñzak
beañ zinduen jan!
Ixilik belañira
dizu arñ itzegin;
zer esan ote dizun
nai nuke nik jakin.
—Ara zer esan didan
arñzak belañira:
Munduan adizkide
era asko dira:
Ez dezu arñtu beañ,
jakizu gauñdandik,
zure adizkidetzat
gizon belduñtirik.

(Ituñiaga)

LOREA



Landareak loretan daude. Beren usai gozoa gure atsegiña izaten da.

Zuaitzak ere loretan daude. Laister lore ori eroriaz, bere ordeez igali edera sortuko da.

Euria ta eguzkiaren indaraz azi egingo da.

Eta gero igali oek gure janari izango dira.

TXORI GAXOA

—Ama, txori bat arapatu det.

—Polita izango da, e?

—Bai, oso polita,

—Zer egin beař diozu?

—Anketik ari bat lotu ta berarekin jolasean ibiliko naiz.

—Ez, ene maitea. Ori gaizki egiña da. Txori gaxo ořek ez dizu zuri bature kalterik egin. Utzi zayozu egoan joaten eta onela poza ta bizia emango diozu. Gañera bere umetxoak ere izango ditu eta bera gabe il egingo lirake.

Ez da beñere gaitzik egin beař.

MUTIL ONA ETA MUTIL GAIZTOA

Xabieřtxo'k maite ditu bere aita, ama, anai-ařebak eta lagun guztiak.

Xabieřtxo zintzoa da.

Xabiértxo'k itxuen bat ikusten due-
nean lagundu egiten dio.

Xabiértxo'k asko maite ditu lagunak.
Martin, bériz, alpéra da.

Martin gezúrtia da.

Martin'i iñorengatik ajolik ez dio.

Izan zaitezte Xabiértxo bezelakoak
eta ez Martin'en antzekoak. /



SUGEA ETA NEKAZARIA

 Gizon bat zijoan bein
 zelaitik etxera'
 goiz guztian lan egin
 eta bazkaltzera.
 Ikusten du bidean
 etziñik sugea
 otzak erdi ilikan
 korderik gabea.
 Kupiturik sartzen du

gaxoak kolkoan
ango beroarekin
pizteko asmoan,
Etxera joan zaneko
sugea asi zan
kolkotikan kanpora
atera nairikan.
Gañetik botatzeko
gizonak aítzen du
eta suge gaiztoak
orzká pozoitzen du.
Ora esker edefak!
Zitalen eskutik
ez du izango inork
beñere gauz onik.

—

Ilabete baño len
suge ura bera
otzak ikaraturik
datoñ sukaldera.
Ojuka asten dira
etxeko guziak,
jaraitutzen diote
moñoi-nagusiak.
Sartzen da ukuluan,
ba-dabilta bila,
arkitzen dute eta



uzten dute ila.

Zitalkeriak ez du
beñere gauz onik
eta iñork ez du nai
ikusit zitalik.

(Ituflaga).

BATUKETA



Xabieñtxo'k ba-
tutzen ikasi nai du.

—Zenbat dira bat
eta bat?—galdetzen
dio aitak.

—Bi, jauna.

—Eta bi ta bi?

—Lau, jauna.

—Zenbat sagañ
daude saski ortan?

—Iru, aita.

—Eta mai gañean?

—Lau, jauna.

—Guziak bilduezkero, guziak bat
jota, zenbat izango dira?

—Zazpi.

—Orduan — dio aitak — iru ta lau
zazpi dira.

KENDUKETA



Xabierxo'k kenduketa egiten ikasi nai du.

—Biri bat kenduezkero, zenbat gelditzen dira?

—Beste bat, jauna.

Ik baldin ba-dituk lau sagar eta ire la-

gun bati bi ematen ba-dizkiok, zenbat gelditzen zaizkik?

—Beste bi.

—Eta zazpi sagar saski oftan ba-zeudek eta lau kenduezkeo, zenbat geldituko dituk bañenen?

—Iru, jauna.

—Ederki, oso ederki.

LUDIA

Gu bizi geran tokiari Ludia edo Luña deritzayo:

Ludia ere, Eguzkia, Ilargia eta beste izaren antzera, borobila da.

Luñ gañean ikusten ditugu zelai,
mendi, ibai ta itsasoak.

Itsasoak estaltzen dute luñaren gain
geyena.

Mendi tarñe bati ibaña deitzen diogu.
Luña aizez ingurutua dāgo eta aize
ortan guk arñasa arñzen degu.


UDABERÍA

Lenbiziko enarak erakusten digute
udabería eldu dala. Eguzkiaren argiak,
belañaren margo orñegiak, loriñ iriki-
tzeak, zuaitzen osto-zabaltzeak, txoriñ
abesti xamuñak, umiñ jolasketak, gure
biotza pozez betetzen dute.

Negu beltz ta atsekabea joana da.
Ortze urdin ta garbiak gure biotza
alaitzen du. Loreak nunai soñzen dira.

Txoriak emen eta an beren kabiak
egiteko gai-bila dabilta. Beste ba-
tzuek beren kabietan umeakin daude
eta umetxo oek noizean bein beren
aotxoak irikitzen dituzte beren amak
ekañzen dien janaria arñzeko.

Zoazte udaberiko goiz eder batean
baso edo mendi batera. An ezagutuko
dezute ongiñena neguaren ondoren
udaberiañaren atsegintasuna.



UDABERIA

Xabierxo. -5

BASOA

Gure mendiko basoetan era askotako zuaitzak ikusten ditugu.

Ezagunenak oek dira: aritzak, arteak, gaztañak, lizañak, zumañak, urkiak, pangoak, izayak eta beste asko. Guziak beren zura ederak ematen dizkigute, bai etxeak eta bai beste gauz asko egiteko.

Gernika'ko Aritzaren azpian euskaldunak beren lege zañak antziñan egiten zituzten.

Gure mendi guziak basoz ondo ornituak egon bea luteke.


UDARA

Udara da urtearen aldirik beroena.

Egunak oso luzeak dira eta gaba labuñ. Goizean lauetako argi dago eta argitasun oñek berak jeki-arazten gaitu.

Eta goiz jekitzen dana ez da beñere damutzen.

Zuaitzak ostoz oso ornitu dira eta



UDARA

loreak bere margo eder ta usai gozoak zabaltzen dituzte.

Eguzkiak galburuak eldu ditu eta nekazaria itayaz lasto luzeak azpitik ebakiaz ari da.

Itsasertzetan bizi diranak itsaso barearen gelditasunaz eta itsas-aizearen gozotasunaz atsegiñez beteak arkitzen dira.

Umientzat, batez ere, au da urtearen aldirik ederena.

EGUNSENTIKO POZAK

Bai gauz ederra dala
goizean goizetik
udaran jaiki eta
makil bat arturik
mendian egitea
ibiltxo bat benik;
ez da munduan izan
ez orain t'ez lendik
orek demaigun baño
poz aundiagorik!
Ipar aize leguna •
likurtaz beterik
gure kolkora dator

lorien tartetik;
baztaŕ guziak daude
intzez apaindurik,
urdin-urdin zerua
pipirika txorik,
eguzkia ere paŕez
mendien gañetik;
maindire bat bezela
gorontz aroturik
lañu txuri goiztaŕa
ereka zulotik;
jolasean amilka
ituritxo garbik,
emen aros politik
an krabelin goŕik.

(E. Aŕese).

IGARI EGITE

Zer gauz ederagoa bero dagoanean urtan sartu eta bustialdi gozo bat artzea baño?

Alaxen da, bañan, ene umetxoak, ez sartu beñere urtan, ibayan edo itsasoan, igari ondo dakien norbait laguntzeko aldamenean ez ba-dezute. Bestela erez ito zindezke.

Igari jakitea gauz atsegiña ta beař-beařetakoa da.

Igariketa, gañera, osasungaři da.

UDAZKENA

Udazkenean igali edo frutak biltzen dira.

Egunak labuřtu eta gabak luzatzen dijoaz. Bero aundirik ez du egiten eta giro atsegiña egun geyenetan izaten da.

Udara joan dala bereala ezagutzen degu.

Gañera, udara zalako ikaskizunak ere alde batera utziak zeuden, eta orain beriz lanean asi beař da.


Berak erakusten digu beti jai ta beti jolasean ezin bizi gindezkela.

Bizi nai ba-degu lan egin beařean gera.

UZTA-BILTZEA

Au izaten da nekazariantzat urtearen aldirik onena.

Ainbeste neke ařtu bai-zuen lenbizi luřak lantzen, ongařitzen eta garbitzen.



UDAZKENA.

Eta berak izan zituen bildurak udarako ekaitz eta kaskabañaz guzia galduko ote zan?

Bañan ez, nekazaria pozik da: udare ederak, sagar usaidunak, mats atsegingarriak bildu ditu.

Lan egin bear da beti, zerbait bildu nai ba-da.

Ereiten ez duanak ez du biltzen.


NEGUA

Negua da urtearen aldirik otzena eta atsekabierna.

Lañu beltzetatik ugari euria erortzen da eta askotan, otz baldin ba-dago, ixil-ixilik baita elura ere.

Bañan neguak bere atsegintasunak ere ba-ditu. Etxe barenean bilduaz geyago lan egiten da, ta arats luzetan etxean aldi ederak igarotzen dira, anai artean jolasean edo aita eta amaren irakaskizunak ikasten.

Lan egin zagun gogotik neguan, gero eguraldi onak etortzean eguraztera poz geyagoz atera gaitezten.



NEGUA

EGUZKIA

Eguzkia da Ludiari eta guri argia ta beroa ematen diguna.

Berari eskeñak bizi gera. Eguzkia oztuko ba'litzake bereala ilko giñake.

Eguzkia gure Ludia baño askoz aundiagoa izanañen txikia ba'litz bezela ageñtzen zaigu, oso uruti dagoelako.

Ba-dirudi Eguzkiak Luñaren inguruan bira ematen duela. Eta ez da oñela. Luña da Eguzkiaren inguruan dabilena.

Gañera Luñak bere ardatzean egun bakoitzean bira bat ematen du.

Eguzkia ateratzen dan tokiari Eguzki-aldea edo Soñtaldea deitzen zayo. Eta sañtzen dan tokiari Sañtaldea.

Ipintzen ba-gera besoak zabalik, eskubikoa Soñtaldera eta ezkerrekoa Sañtaldera, gure aũrean daukagu Ipañaldea eta gure atzean Egoaldea.

Eguzkia eguerdian Egoaldean dago.



EGUNSENTIA

Egun sentia dator
goizero bezela
argi-txintaz banatzen
mila sentiera;
gero txokon batetik
mendien gañera
irtengo da par-iriz
eguzki epela
nagitasun guziak
luñari kentzera.

—
Goi argitzen danean
zerbait urutia
eskutatzen dijoa

izaren argia;
urdin-urdin jantzirik
zerupe garbia
laixter osatutzen da
ud'egun beria
ainbeste poz ta atsegin
dakarren aldia.

(E. Añese).

GIZONAREN BIZIA

Gure bizia oso laburra da.


Jayotzen da gizona, gero ainbeste lan ondoren azi ta bizitzen da eta azkenik zartutakoan iltzen da.

Bańan askotan ez da zartuta iltzen. Gazte askok gaitzen bat arapatuta beren eriotza arkitzen dute.

Ez uzte izan ba, ene umetxoak, betiko zeratela.

Ikusten degun guziak bere azkena izango du.

Jainkoak bakarrik iraungo du, betikoa dalako.



ILUNABARA

Ixil-ixilik arkitutzen da
ixil-ixilik mundua,
ez da mendian ezer entzuten
ez bada ontzen oyua;
ixilik dago tantai gañean
lengo txori beritsua
lumatxo bigun aro tar-tean
gorderik bere burua.

Gero goi zabal miragaña
urez apaintzen danean
otoitz egiñik beti bezela
oyeratzen geranean...
gau ipaitsuak estaltzen gaitu
lañuzko maindirepean
erugabeko lo, lo goxoa
egin dezagun pakean.

(E. Añese).

ORTZEA EDO ZERUA

Jaso ditzazute zuen begiak zerurontz.
Eguna ba-da ta garbi ba-dago Eguzki



edeña zuen gañean ikusiko dezute ar-
gia ta berotasuna ugari dariola.

Gaba baldin ba-da ta oskarbi ba-



-dago gauzik arigariena ikusiko dezute: Aneika ta aneika, milaka ta milaka argi txiki biziak. Argi oek izañak dira. Eta izañ oek gure Eguzkiaren antzekoak dira. Eta txiki ageñtzen zaizkigu oso uruti daudelako.

Zenbat izañ ote dira? Inork ere ez daki, ezin zenbatu ditezkelako.

Gure Eguzkia ere izañ bat da eta ez aundienetakoa; beste asko aundiagoak dira.

Eguzkia erdian egonik zortzi Inguruko nagusi ditu: Merkurio, Artizaña, Ludio, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, ta Neptuno. Gañera beste Inguruko txiki asko ditu.

Inguruko guzti oek berez argirik ez dute, izañbelak dira, eta guri bialtzen digutena Eguzkiak emana dute.

Argiak iroiren edo segundoko 300.000 mila kilometro ibiltzen ditu.

Eguzkiaren argiak gugana iristeko zortzi minutu beañ ditu.

Bañan izañak askoz urutiago daude. Bertena dagoanaren argiak bost urte beañ ditu etoñtzeko.

Beste asko oraindik ere urutiago daude eta beren argiak eunka urteak

eta baita milaka ere bear dituzte onera iristeko.

Izarik ederenetako batzuek Antares, Sirius, Aldebaran eta Arkturus dira.

Izar aundi oek agertzen zaizkigunean irudi bat bezela egiñaz, *izartiak* deitzen zaye.

Izarti ederenetako bat Orion deritzayona da.

Ezin genezake neurtu izartegiaren aunditasuna. Berak azaltzen digu garbi bere Egile, gure Jaungoikoaren aunditasun neurigabea.

ILARGIA

Izarak argi egiten dute, bañan *izar-ilak* edo *izarbelak* argirik ez dute.

Ilargia izarbel bat da, eta Luñaren inguruan ibiltzen da.

Luña edo Ludia baño askoz txikiagoa da. Bertan agertzen diran itzalak ango mendiak dira.

Mendi asko ta aundiak daude ilargian.

Bañan, dirudienez, an ez da iñor bizi.

Eguzkiak, guri bezela, ilargiari argia bialtzen dio.

ZUAITZAI EZ KALTERIK EGIN

Zuaitzak egiten dute gure mendien jantzirik edereña. Zuaitzik gabe gure mendiak soil eta bizirik gabe bezela ikusiko giñituzke.

Berak ematen digute itzal gozoa udarako egun beroetan.

Berak ematen digute gure etxeak, gure mayak, esertokiak eta beste gure tresna asko egiteko gaya.

Berak ematen digute gure janariak egosi ta eretzeko erékaya.

Berak laguntzen digute neguko otzak gure etxetan epeltzen.

Zuaitzik gabe gure ibayak agoñtuko lirake; gure olak gelditu egin beaño luteke.

Kentzen dan zuaitz baten ordezt bi beñi ipiñi beañ lirake.

EGURALDI ONA



Gaur eguraldi edera degu.

Goizetik nastuko zala zirudien, bannan odeitarretetik eguzkia atereaz guzia argitasunez bete du.

Mendi goituak oraindik ere lausotan bilduak daude.

Toki eguteretan ozpeletan baño giroago dago.

Itzala udaran atsegiña izanaren ne-guan atsekabea da.

Jayegunetarako eguraldi edera bezelakorik ez da mendi batera igota ederki egurasteko.

Eguraldi ona guzientzat atsegiña izaten da.

Txoriak, batez ere, ba-dirudi eguraldi ona danean, beren txorotxio eder-enak egiten dituztela.

EGURALDI TXARA



Aize indartsu onek azkenik ekaitza ekañi digu.

Eurijasa aundia ari da. Kaskabaña ere nunbait izan bea du. Kaskabañak, eta batez ere ariak, kalte aundiak egiten ditu.

Tximist aundia zan ori! Bai turmoya ere, ikaragaña izan da!

Etxegañean tximistoratza ba-degu ta ba'likeke an erortzea.

Ara! Eguzkia odeitartetik irtetzen asten da. Auxen da ostelaka edeña! Bai margo garbiak dauzkala! Goña, urdiña, oria, orlegia...

Ez bada bilduñ izan, eguraldi txararen ondoren eguraldi ona etoriko da-ta.

EKAITZA

Estaltzen dute zerua odoi
izugarriak,
guzia dar-dar ipintzen turmoi
dunbotslariak;
bildurtzen gaitu gau ilunean
tximistargiak,
f'ez gutxiago ondorenean
jazar aundiak.

—
Zatitzen ditu aizeak gogor
mendiburuak,
uratzen bean ujolak alor
oparotsuak;
jasa bizia dakañ berela
ekaitz oyuak
misto suminkor latsa bezela
sube-txistuak.

—
Sututzen dira tximistarekin
zuaitz igararak
goritzeraño bere suakin
odoi nabañak;
itsas aldera gainka dijoaz
ibai azkañak
gero ta geigo puñukatuaz
mendi-baztañak.

(E. Afese)

EREKAYAK



Janariak egosi ta eřetzeko sua egin beař da.

Sua egiteko biltzen dira txirbil, ezpal eta eguřak.

Su ařtu bezin laisteř, gařa guzien gain aterako da.

Sua eguř-ikatzaz ere egin diteke. Ikatz au gure mendietan ikazkiņak txondaretan egiten dute.

Txondareak deitzen zaye ikatza egiteko eguřpilai. Eguřpila oek luřez es-taltzen dituzte eta azpitik su emanaz pitinka-pitinka ikatza egiten da.

Sukaldean eřetzen degunak egiten duen kea kebidetik gora joaten da.

Ařikatza, beste eřekai bat, luřpetik

atera beaŕ izaten da. Lenago, orain urte asko dala, baso aundiak ziran lur gañean.

Baso oek gero urpean ta lurpean geldituaz aŕi biurtu ziran.

Eta orain, ainbeste urte ondoren, eŕekairik onenetako bat da aŕikatza.

Aŕikatzatik beste gai asko ateratzen dira.

BURNIA

Buŕnia ez da aŕkitzen guk gero ikusten degun bezela.

Meatzetatik ateratzen dan buŕnikia labetan urtu beaŕ da buŕnia egiteko.

Buŕnia landuta altzairua egiten da. Altzairua buŕnia baño gogoŕagoa da.

Buŕnia gauz askotan erabiltzen degu. Ezin lirake milaka gauz egin buŕnirik gabe.

Eta ala ere gizona urte askotan bizi izan zan buŕnirik ba-zanik ere jakin gabe.

Orduan bere fresnak zurezkoak eta aŕizkoak ziran.



AIZKORA ETA KIRTENA

Eguñgile bat
soñt-egitera
joan zan basoan bañena,
eta bidean
galdu zitzayon
aizkoratikan kirtena.
Soñt-egiteko
beste beñi bat
egin nairik aizkorari,
gaya eskatzen
asi zitzayen
an zan zuaitz bakoitzari.
Iñork etzion
gairik eman nai,
eta arteak bakañik
adañ metxo bat
eskeñi zion
gaxo aítzaz kupiturik;

kirten beña
egin ondoren
sañtzen dio aizkorari,
eta jokaka
asitzen zayo
arte arixe berari.
Au ikusita
asten dirade
zumañak eta lizañak,
arte onari
gogoñ egiten
oju eta deadañak.
—Asto aundia,
esaten die
ez al lekien oraindik
egurñileak
bizi dirala
guk galtzen degun bizitik?
Oña zer eskeñ
ematen dian;
orain asi dek igandik,
sañi ez geatzik
bat bakañikan
basoan utziko zutik.
Iri bakañik
egin ba-zian,
kaikutzañ oñi, kaltea
ezer etzuen,

baña guretzat
ez dek izango ohea.

Bere etsayari
eman ba-dio
noizbait norbaitek eskua,
len edo gero
ikusiko du
galdurik bere burua.

(Ituñiaga)

GARIA

Garia ereiteko lenbizi luña landu
egin bea da.

Luña lantzeko goldeaz iriki ta iraul-
tzen da.

Luña landuta gero zokoñak zokoñ-
jotzaleaz austu bea dira.

Ondoren garaleak ereiten dira.

Andik ilabete batzuetara garia er-
netzen da.

Galburuak egin ta eldu diranean ga-
ria ebaki ta biltzen da.

Bildu nai ba-da erein egin bea da.

AIZEA



Aizeak biltzen gaitu alde guzietatik.
Aizerik gabe ezin bizi gindezke.

Arnasa artzean aizea sartzen zaigu
gure biriketean barengo odola ber-
itzeko.

Bañan ortarako aize garbia artu
bea da.

Mendi gañetan egoten dan aizea,
geyenetan beko tokietan dagoana ba-
ño garbigoa da.

Toki itxietako aize zikiña artzea kal-
tegarri da.

Argatik on da al dan guzian leyoak

zabalik lo egitea, beñepein aizea beñ-itu dedin eran.

ELUÑA



Neguko eguraldi txarretan, goyetan otz dagonean, euriaren ordeztu eluña egiten du.

Nor, ume dana, ez da pozik egon eluña mara-mara erortzen ikusiaz?

Eluña ez da baizik ura puska txiki-txiki gogortua. Puska txiki oek alkar ganatuaz eluñ-maloa egiten dute.

Eluña polita da egun batzuetan ikus-



teko. Bañan azkenerako aspeitu egiten du. Zuritasun arek, ixiltasun arek erio-tza gogoratzen digu.

IZOTZA



Otz aundia egiten duanean ura oso gogoitu egiten da izotz biurtuaz.

Izotz puska bat suaren ondoan ipintzen ba-degu ur egiten da, eta orduan esaten da izotza urtu egin dala.

Izotzaren antzera berotan urtzen dira ere burnia, beruna, zilara, urea ta beste menasta guziak.

Erialde batzuetan, otz oso aundiak



diralako, ibayak eta baita itsasoak ere izoztu egiten dira, gañetik gizonak eta gurdiak ere ibili litezkela.

ITSASOA

Itsasoan biltzen dira ibayetako urak eta baita ere ibai oek ekartzen dituzten ondar, ari ta beste gai guztiak.

Beñere ikusi al dezute itsasoa? Azkenik ikusten ez diogun zelai aundi aiek Jainkoaren aunditasuna agertzen digu.

Bere gaña geyenetan olatuz edo uñez zimurtua ikusten degu. Eta ekaitza danean olatu oek ikaragañiak dira.

Bere ondoa oso aundia da; emen ditugun mendi guziak baño aundiagoa.

Itsasoak bere gora-berak egunero izaten ditu. Goruntz dijoanean *izgora* deitzen zayo eta bera dijoanean *izbera*.

Legoña ta itsasoa ikutzen diran tokiari *itsaseñtza* deritzayo.

Itsasoa legoñean sartzen dan tokia-ri *izbazteña* deitzen diogu.

Eta itsasoan sartzen dan legoñ zatiari *lurmutuña*.

ONDARTZAN



Xabiértxo eta Mirentxu oso onak diralako, beren aitak Donosti'ko on-dartzara eramán dituzte.

Umien poza ain toki ederean arkitu diranean!

Bereala asi dira aretan zuloak, tontorak eta zubiak egiten.

Naiko jolastu ondoren Xabiértxo'k galdefu du:

—Aita, zer da mendi tontor ura?

—Ori dek ugarite bat. Ugaritea deitzen zayok ur-aritean dagolako, urez bildua dagolako.



—Eia an aúean dijoan gauz luze ura?

—Ori dek aúan-ontzi bat. Or ziaztik aúantzale batzuek beren aúanaz ontzixo arin ori aúera eramana.

—Eta beste gauz aundi ura?

—Ura dek aize-ontzi bat. Zapi aundi batzuek zabalduaz aizearen indararak bultzatzen zio. Beste aek lurin-ontziak dituk, luriñaren indarrez ibiltzen diralako.

Naiko jolastu eta asko ikasita gero etxera joan ziran guziak.

Umeak, onak diranean, beren gurasoak pozik eramaten dituzte onelako gauz ederak ikustera.

AZTUNTASUNA

Ari bat lurretik jaso nai deguncan ikusiko degu betek zerbaitek eusten ba'lio bezela zail egiten zaigula jasotzea.

Ari ori, beste gauz guziak bezela, aztuna da. Ariaren aztuntasunak egiten

du jasotzekoan guk zailtasun ori afkitzea.

Gauz guzien aztuntasuna ez da berdina: burña, lastoa baño aztunagoa da.

Aztuntasuna neuritzeko *Azta-neurkia* degu.

BELEA ETA SUGEA



Bele batek suge bat lo zegoala ikusiaz, bere gañera joan eta mokoaz arapatu zuen. Bañan sugea esnatuaz, beleari lepoan bildu zitzaion eriotza emanaz.

Gauzak egin baño lenago, ondo ikusi bear dira, bestela gauz ona afkitzea uste degunean, txarfa irtetzen zaigu.

IZKUNTZAK

Jainkoak gizonari emandako gauzik edereñetako bat izkuntza da.

Izkuntzaren bidez bere gogoak, bere atsegiñak, bere atsekabeak beste gizonai adiarazten die.

Era askotako izkuntzak dira, abenda geyenak beren izkuntza dutelako.

Izkuntza oek ere ez dira alde guzietan berdin izaten. Berdiñak ez diran izkuntza bateko era oei izkelgiak deitzen zayote.

Ludian zabalduenak diran izkuntzak ingelera, pantzera, doitxera eta espanñera izango dira.

Gure izkuntza euskera da. Ludian dan izkuntzarenetako bat da, eta bera ikasi duten jakintsu guziak bere edertasunaz arituak gelditu dira.

EUSKALERÍA

Ara zer alai dagon
gure soñtería
aritz, pago ta lizaf
bikañez jantzia.
Alde bateko mugan

itsas ugaria,
arkaitza jo f'astintzen
bere apar txuria;
saroí oparotsuak,
kerizpe geldia,
baseñitxoak nunai
ta nunai pakia,
mendi-gain bakoitzean
txabola txikia,
artalde bat ondoren,
gero... gurutzial

(E. Añese).

EUSKALÉRIAREN EDÉRTASUNA

Ez guk onela diogulako baizik arotzak ere ala diotelako Euskalería ludiko tokirik ederenetako bat da.

Berak ditu zelai ederak.

Zuaitzez ongi ornitutako mendiak alaitzen dituzte gure begiak: Orhi, Aizkofi, Aralañ, Anboto, Gorbea, Ernio goituenetakoak dira.

Ibai urtsuak ongaritzen dituzte zelai eta ibarak, ainbeste ola ta lantegi erabiliaz: Ibaizabal, Mundaka, Deba, Oria.



Urumea, Bidasoa, Nibe, Ebro, Arga
dira ibai aundienetakoak.

Bere eñi ezagutuenak Bilbao, Gerni-
ka, Tolosa, Azpeiti, Donostia, Gazteiz,
Bayona, Donibane, Atafatse, Maule,
Iruña, Lizaña dira.

Nork ez du entzun Donostia'ren
edertasuna? Guziak ao batez diote eñir-
ik edeñ ta politena dala.

Poztu gaitezzen bada Euskalería'n
jayo gisialako.

EUSKAL-ERESIA

Tontor galenez inguratua
zauden luñ maitagaría
mendi bakoitza ba'litz bezela
beronen gordelaria;
gizon ernai ta zintzo askoen
soñteñi kutsu gabea...
luñin beroaz orniturikan
euskaldun izan zaitia.
Euskalería goitu dezagun
euskera maite degunak,
aitoñtu lengo zorion edeñ
berak eman dizkigunak;
ñunai arduraz banaturik itz

amari jayo f'entzunak
alkartasunez bizi gaitean
beti-beti euskaldunak.

(E. Afese).

ALKARTASUNA INDAÑA DA



Nekazari batek seme-alaba asko zituen. Geyenetan beren artean asare zebiltzan.

Esanañen bein ta beñiz onela bizitzea berentzat kaltegarri zala, egunero iskanbilien bat izaten zuten.

Batean aitak, guziak bilduaz, onela esan zien:

—Ikusten al dituzute emen nere eskuetan dauden arbazta oek? Berak bat-banaka eusten oso ereza da. Ikusi zazute zeok ere. Bañan guziak alkartuta sorta bat egiten ba-degu nork autsi lezake? Guziok alkartzen ba-zerate,

alkaŕi lagunduaz sendo izango zerate, bañan banakatuezkero laister galduko zerate. Alkaŕtasuna indaŕa da, izan au beti gogoan.

LANTEGIAK ETA OLAK



Ola deitzen zioten aspaldian buŕnia urtu eta landu egiten zan etxe aundiai, Oraindik ere nun eta an ola zaŕak ikus-ten dira.

Bañan gauŕko egunean era asko-
tako olak dauzkagu: ingi-ola edo
paper-olak, iltze-olak, boina-olak eta
beste asko.

Ola aundi oetan langile askok lan egiten dute eta makina edo traman-
kuluen bidez egunetik egunera gauzak eŕezago egiten dituzte.

Aŕigaŕiak dira ola oetan dauden auŕerapenak. Lenago langile batek

amaf gauz egun guzian gelditu gabe lan egiñaz egiten ba-zituen, orain, ia neke gabe, eun edo bereun egin lezazke.

Gizonak soñtutako auñerapenak ari-gariak dira.

SUMENDIAK

Mendi batzuek beren mutuñetik autsa, kea ta sua botatzen dute. Argatik *sumendiak* deitzen zaye.

Askotan ke utsa dariotela luzaroan egoten dira, bañan noizean bein su ta gar asten diranean gizon biozdunenai ere bildura sartzen diete.


Ango luñikarak, ango turmoi ta tximistak, ango auts-erortzeak egiten duen ilunpea edozein izutzen dute.

Sumenditik urtua ateratzen dan *labak* eri asko ta asko kiskali ta galdu izan ditu.

Itali'ko Napoli'n dagon Besubio-sumendia oso ezaguna da.

Orain bi mila urte berak auspean estalia utzi zuen Pompeya eri edera urte asko ez dala autsa kenduaz luñpetik azaldu da.

IDAZPENA



Gizonari, Jainkoak egin zuenetik itz-egiten jakin ba-zuen ere, urte asko joan zitzaizkion beste gauz arigarri au sortu zuen artean: bere gogoak, bere itzak zerbaiten gañean, ikusten ziran ikuñaz edo agerbideaz, iraun-araztea. Auxen da ba idaztea.

Iñork ez daki nor dan idaztea sortu zuena.

Idazkera asko dira. Batzuek egiten dute ezkeretik eskuira, guk bezela. Besteak eskuitik ezkerera, besteak goitik bera eta beste batzuek betik gora.

Idazten degu idazkoitzaz axotean, tintan, mutura bustiaz.

Idazpenari eskerak antsiñako jakintsu askoen gogo ta asmo ederak gauñdaño iritxi zaizkigu.

Itzak egan joaten dira, bañan idatziak iraun egiten du.

IDAZTIA



Orain eskuetan daukazu au *idazti* bat da, liburu bat da.

Idazti onek ditu *oñiak*, eta oñi bakoitzak bi *oñialde* ditu. Oñiak zuriak dira. Izkiak beltzak.

Oñiak ingizkoak, paperezkoak dira.

Gañoekoari *azala* edo *idazti-azala* deitzen zayo,

Idaztiak lenago eskuz idatziak izaten ziran, bañan 1450'gañen urtean Gutenberg doixtañak irañkintza soñtu zuen, eta geroztikan irañiak egiten dira.

Irañtzeko berunezko izkiak beañ bezela ipiñiaz makina batean jañtzen dira eta axotez beztu ondoren, beren gañean ingi edo papera zapalduaz irañpena egiña gelditzen da.

Onelaxe, eta baita ere beste eraber-
iagoetara, egiten dira gauko egunean
ainbeste ta ainbeste idazti eta ainbeste
eta ainbeste izpeingi.

Irakurtzea, ogia bezin beara da.

LUDIAREN ZATIAK

Bost dira: Europa, Asia, Apirka,
Amerika eta Ozeania.


Europa da txikiena bañan baita aur-
eratuena ere. Bertan bizi diran geyenak
zuriak dira.

Asia da zatirik aundiena. Ludiko
mendirik goituena antxen dago. Be-
deratzi mila neurkin edo metro baño
geyago ditu Imalaya'k. Asia'n bizi diran
abenda asko orietakoak dira.

Apirka da zatirik beroena eta ango
abenda geyenak beltzak dira.

Amerika bi pusketan ebakia dago:
goikoa eta bekkoa. Bekoan dago ludi-
ko ibairik aundiena: Amazonas-ibaya.

Kolon itsasgizon bularitsuak arkitu
zuen Amerika. Bañan askok usten du-
tenez bera baño lenago arantzale eus-
kotarak ara iritxiak omen ziran.



Ozeani geyena ugar̄te txiki askotan sakabanatua dago. Ugar̄te oetan bat oso aundia da: Australia.

ELKANO



Elkano izan da ludi guzia lenbiziko inguratu zuena.

Biotz aundiko getariañ au Sanlu-kañ'tik beste askor-ekin bost ontzitan atera zan Beko Amerika'runtz, an-
dik Indiarako bide bat arkitzeko asmo-
tan.

Geroztik Maga-
lanes'ena deritza-
yon Estua arkitu-
ondoren Pilipinas-Ugastietara iritxi zi-
ran.

Bañan an, beren buru egiten zuen Magalanes angotafak il zutelako, El-
kano jañ zuten agintari eta gose, neke
ta naigabe asko igaro ondoren, len

irfendako tokira beñiz iritxi ziran Ludi guzia inguratuaz, 1522'ko Agoñaren 6'an, iru urte igaro ta gero.

Izan beti gogoan Elkano bezelako gizonak, beren antzera guk ere biotza sendotu dezagun.

GUZIOK LAN EGIN BEAR DEGU



Eguzkia atera da. Eñian eta mendian guziak beren oetik jeki dira.

Amak bere ume-
txoak jantzi ta gar-
bitzen ditu. Aita
bere lanetarako
etxetik irten da.

Guziak batetik bes-
tera beren eginkizu-
netara dijoaz.

Lantegietan, ole-
tan, saltokietan lan-
gileak batu dira ber-
en lanari ekiteko.

Argia ofmak egi-
ten asi da. Zurginak bere zura ta egur-
ak lantzen ditu, buñiginak altzairu ta

burñiak erabiltzen ditu, jostunak soñe-koak ebakitzen ditu, oñetakogileak oñetakoak egiten ditu.

Sendagilea bere gaxoak ikustera di-



joa. Irakaslea bere irakasleai irakasten asten da.

Ene unretxoa: gizon guziok lan egin bear degu, batzuek batera eta besteak

bestera, batzuek eskuz, besteak bu-
ruz. Lan gabe ez dago ez janaririk, ez
jantzirik, ez bizitokirik, ez pozik, ez
atsegiñik.

Guziok lan egitea Jainkoaren gogoa
da.

IZADIAREN IRU ZATIAK

Izadi guzia Jainkoak egiña da.

Ari bat begira zazu; zentzunik ez du
eta bere tokitik ezin igitu diteke. Bi-
zirik ez du. Onen antzeko gauza gu-
ziaz *Meak* deitzen diegu.

Begira zayezu orain belarari, loreai,
gariari eta sagar eta udareai. Oek ere
zentzunik ez dute eta ezin ibili ditezke;
lurari beren zañez lotuak daude. Ba-
ñan azten dira eta bizi dira. Oei lan-
dareak deitzen diegu.

Begira zayozu orain eguzkitan lore
batetik bestera margo ederez jantzita
dijoan mitxirikari edo adaretik adar
arin ta alai dabilen txori abeslariari.
Oek beste zerbait dira. Berak berez
nai duten tokira ibili litezke, berak ba-
-dakite zer diran atsegiña ta atseka-
bea. Abereak deritzaye.

Mea guziak bat joaz deritzaye *Mea-*
dia, landare guziaz *Landaredia* eta aber-
eai *Abeldia*.

Oek dira Izadiaren iru zati nagusiak.

ABELDIA



Abeliztian ikasten dira abereai da-
gozkien gai guztiak.

Abereak bi eratakoak dira:

Ezurdunak eta *ezurgabeak*.

Ezurdunak bost eratakoak dira:

- 1 Bular-dunak.
- 2 Egaztiak.
- 3 Narastariak.
- 4 Ur-luftarak.
- 5 Arayak.

Ezuzgabetan daude:

- 1 Armiamak.
- 2 Zomofioak.
- 3 Añak.
- 4 Eun-oindunak.
- 5 Otañayak.

Gañera ere ba-dira Ezuzgabetan Abel-landareak (zoofitoak), Soin-berak (moluskoak) eta Zomofioak (mikro-bioak).

ABELDIA. BULARDUNAK

Bulañdunak dituzte ortz-aginak aboan, ilea lañuan eta beren umeak esnez azten dituzte.

Geyenak lau-oindunak dira eta biriken bidez arnasa añtzen dute. Beren odola beroa da, eta beretako geyenak luñ gañean jayo, azi, bizi ta ibiltzen dira.

Batzuek noiznai luñean eta noiznai urtan bizi dira eta oei ur-luñdiak edo igarilariak deritzaye.

Bulañdunak era askotakoak dira. Ona emen ezagunenak:

Lenengoetakoak *Tximua*k dira az-

kañenak eta gizonaren antz geyena dutenak.

Aragizaleak, eta oetan daude Katua, Legoya, Katamotza, Aftza, Otsoa ta Zakuña.

Azal-lodidunak, izenak berak dionez, azala lodia dutenak dira. Oetan daude Elepantea, Urzaldia, Zeña edo Urdea, Basurdea.

Ausnañlariak. Oek jaten dute lasterka, bañan gero urdaletik beriz aora janaria ekartzen dute ausnañtzeko. Beya, Aaria, Oriña, Basauntza, Orkatza (gamuza), Konkoñduna ta Bikonkoñduna ausnañlariak dira.



LEGOYA ZAREZ ILTZEN

Legoi guztiz aundi bat,
ez il bai ilean
luze-luze etziñik

zegoen lufean:
urteen zamak zeukan
ezin igiturik
bada etzan arkitzen
argan beste miñik.
Oruaz mendiz mendi
zanean lenbizi
abereak zebiltzan
argandik igesi:
bat bakarrikan etzan
guztien artean
itxorongo zionik
iñolaz bidean.
Orain ikusirikan
etziñik lufean,
esan dedan bezela
ez il bai ilean,
an dijoaz laisterka
txiki ta aundiak
eta ito nai dute
gaxoa guztiak.

—
Zitalen kontua da
gaxoa danari
egin nai izatea
pasa eta iri.
Gizon zintzoak ez du
onela pensatzen,

gaxoenari dio
geyena laguntzen.

(Ituriaga).

ABELDIA. BULARDUNAK (Jaraipena)

Azkazal-batekoak. Onela deritzaye oin bakoitzean azkazal bat bakarrik dute-lako, beyak bi dituen ordez.

Zaldia da era ontakoetan abererik edereña. Bere burua luzea da; belarriak zuzen eta txikiak, begiratua bizia, lepoa luzea eta ankak medarrik. Ilea motza du, bañan lepo gañean eta isatsean zurda luzeak izaten ditu.

Astoa eta Mandoa eztira zaldia bezin ederak, bañan gizonari laguntza aundiak egiten dizkiote.

Izabereak edo itsasoko abereak uretan bizi izanañen noizean bein urgañera irten bear izaten dute arnasa artzeko. Oetan daude Balea eta Izurdea.

Balea da gaurko egunetan ezagutzen dan abererik aundiena.



TXOAREA ETA ERBIA

Añano batek zuen
erbi bat atzeman,
eta zeukan itotzen
bi atzaparetan;
txoañe batek ustez
toki segurutik,
oju egiten dio:
Esaten ez dek ik
ez dala luñ gañean
arkitzen mutilik
laxteketan i ainbat
joan litekenik?
Orain zertan ago or,
erbitxoa, geldi
oren mutil ariña
aizen ezkeroz i?
Onela itz egiten

dion bitartean,
gabirai bat gainera
datoñ bat batean;
artzen du txoarea
aren atzaparak
kentzen diozka bere
iri eta parak.

—
Inork mundu onetan
ez dezake esan
ur onetatik nik
ez det beñ edan.
Usterik gutxiena
guk degun orduan
arkitu oi gerade
besteen lekuan.
Argatikan beñere
zorigaiztokoaz
ez degu egon beñ
iriz eta paraz.

(Ituriaga).

ABELDIA. BULARDUNAK (Jaraipena)

Sabelzakeldunak deritzaye sabelean
zakel bat dutelako. Zakel ortan amak
eramaten ditu beren umeak txikiak dir-

anean. Kanguroa da abere oetan ezagunena.

Zomoñojaleak, deritzaye zomoño jate-tik, batez ere, bizi jiranai. Eta oetan daude Satoña, Trikua ta Satitsua.

Satoña, lurpean egindako bidetatik, zomoño bila ibiltzen da. Bere begiak oso txikiak dira eta bere ilea oso leguna. Trikua, bere zurdile gogor zorrotzetan, inork ikutzen duanean, biltzen da.

Kařaskariak. Onela deritzaye matrazlezuř bakoitzean bi ortz luze izanaz oen bidez janaria kařaskatzen dutelako. Oetan ezagunenak dira Sagua, Erbia, Muxařa eta adaretik adar bizkoř ibiltzen dan Katagořia.

ABELDIA. BULARDUNAK (Jařaipena)

Saguzarā. Askok uste dute egan ibiltzen dalako Saguzarā egaztia dala. Eta ala ere ez da, mokorik ez lumik ez dualako. Au ere bularduna da.

Bere beatz luze tartean duen mintzai eskerak egan egin dezake.

Gau-txoria da, eta zomoño kaltegarī asko jaten ditu!

EGAZTIAK

Oek ere ezurđunak dira bañan dituzte mokoa, lumak, egak eta bi anka.

Beren kabitan arautzat ipintzen dituzte eta arautz oetatik umetxoak irtezen dira.

Arautzak iru gai ditu: azala, zurin goa eta gorringoa. Gorringoan egoten da tanto txuri bat eta bera da umearen azia.

Egaztiak era askotakoak dira. Ona emen ezagunenak:

1 *Arapalariak*. Oetan daude Aranoa ta Saya. Aragia jaten dute.

2 *Txoriak*. Enarak, Mitxiguak, Iski-xuak, Txantxangoñiak, Txepetxak eta beste askok zomoroak jaten dituzte.

3 *Oloantzekoak*. Aleak iresten dituzte: Olo, Epeñ, Galepeñ eta onelakoak.

4 *Ankaluzeak*. Olagoñak, Egaberak, eta abar.

5 *Igarilariak*. Ateak.



TXANTXANGORÍA

Udara joan ta egun ilunak
ondoren datozenian,
eguzkia ta gure poz denak
eskutatzen diranian...
zer ari zera bada kantari
ordurik ixilenian,
zer ari zera Txantxangoria
ain era kupigarían?

A, zenbat aldiz ala
jardun txit maitian
txotx baten punfan edo
arantza tartian
zaudela egon ote naiz
an... aldamenian
nere miñak oroitzen
zure jardunian!

Zure kolore ber-bera duten
osto bakanak luñian
arboletatik erori eta
soil dauden garai berian,
begiak xabal-xabal jañirik
antxe bide baztarían

egoten zera txori gaxoa,
negarez udazkenian.

—
Papañ goñi txikia
leitzeko zorian
lumetan bil-bil aro
darukazunian...
ez dakit nola negañ
guziak batian
kabitzen diran zure
kolko politian!

(E. Afese).

NARASTARIAK

Oetan ere era askotakoak dira. Eza-
gunenak Muskañak, Surangilak, Txa-
beraniak eta Sugeak dira.

Sugetan asko oso gaiztoak dira,
beren oskak gizon ta abereak bereala
iltzen dituzte.

UR-LURTARAK

Oetan daude Txantxikuak, Igelak,
Arobiyoak eta abañ.

A'RAYAK

A'rai guziak urtan bizi izaten dira.
Ezagunenak Amoraia, Legatza, Izo-
kia, Aingira, Txardiña, Txitxardiñak,
Bakaloa eta beste asko dira.

Beren ezur medar ta luzeai arantzak
deitzen diegu.

A'ANOVA ETA AZERIA



A'anoak bere umetxoai jaten emateko azari bati bereak ostu zizkion.

Bereala azeria joan zitzayon umien eske, bañan a'anoak, bere burua indar-tsuagotzat uste izanaz eskabide aye-tzaz par egin zuen.

Azeriak orduan, asafeturik, a'anoa

zegoan zuaitz edo arbolaren azpian su aundi bat piztu zuen. Bereala gañak eta kea aranoaren kabiraño iritxi ziran. Eta onek ikusi zuanean bere umetxoak ito egingo zirala, azariari bereak biur-tu ziozkan sua itzali zezan.

Ez da bada gu baño txikiagoai kal-terik egin bear, berak ere guri kalte egiteko bidea arki lezateke-ta.

ABERE EZURGABEAK

Bere izenak dion bezela abere oek ez dute ez ezurik eta ezta ere odol gor-irik. Abere oek guziak anakak dituzte, batzuek geyago eta besteak gutxiago.

Bost eratakoak dira:

1 *Armiarmak*, egorik ez dute. Zortzi anken gañean ibiltzen dira.

2 *Zomoñoak*. Oek era askotakoak dira, bañan guziak sei anka dituzte.

Oetan ezagunetakoak dira Eulia, Er-lea, Amonamantangoña, Kilkeña, El-txoa, Akaña eta Listoña.

3 *Añak*. Oen soña biguña da eta oñik ez dute. Ezagunenak dira Luñ-aña eta Izaya.

4 *Eun-oindunak*. Onela deritzaye ez eun oin dituztelako, baizik bai asko, eunera iritxi gabe. Geyenetan berogei dituzte.

5 *Otaráyak*. Ezufgabeko abere oek ur azpian arnas artu dezateke.

Oetan ezagunenak Otáfaya, Misera ta Zanguñoa dira.

ABEL - LANDAREAK

Abere oek landare batzuen antza beren adarakin dutelako abel-landareak deitzen zaye.

Ezagunenak Korala, Belakia (España) eta itsasoko Izaña dira.

Guztiak itsasoko uretan bizi izaten dira.

SOIN - BERAK

Oen soña edo gorputza oso biguñia izaten da eta geyenak azal gogor batean bilduak bizi dira.

Ispel edo Ostrak, Barekurkuloak (Karakolak), Bareak, Amafatzak, soinberak dira.



ZOMORTXOAK. (Mikrobiyoak)

Zomoño txiki batzuek dira oek. Berak ikusteko Txikikuskiñaz (Mikroskopiyoaz) begiratu beaŕ zaye.

Gaitz ikaragaŕi asko zomortzo oek soŕtuak dira.

LANDAREDIA



Landareak bizi, azi ta iltzen dira, bañan ezin beren tokitik igitu ditezke. Zentzunik ere ez dute.

Iru eratakoak dira: *Zugatzak*, *zugaznoak* eta *belarñak*.

Landare baten zatiak oek dira: za-

ñak, enboña, ostoak, loreak eta igaliak (frutuak).

Zañak biltzen dute lurpean janaria eta mami ta azal tartetik landarearen adar guzietara igotzen da. Janari oni *izerdia* deritzayo.

Enboñean daude biotza, mamia eta azala.

Ostoen bidez landareak aizean dauden gai batzuek ere biltzen ditu, arnasa artuaz.

Lore batean ikusi gantzazke batez ere ontzia, oritxoak, ariak eta autsa.

Igalien barenen aziak egoten dira.

Landare batzuek loregabeak izaten dira eta oetan daude sisak eta goroldiyoak.

AZERIA ETA MATSAK.

Zintzilika daudela
ditu azeriak
ikusten mats-mordoak
eldu ori-oriak;
jaritzen da begiraka

gaxoa goseak,
bařena ibiltzen zayo
jateko zaleak.

Saltoka asitzen da
alegin guztian,
ordu bian ba-dabil
ezin iritxian.

Ikusi zuanean
etzuela ařtzerik
matsai esan zien
begiak jasorik:
Zaute, zaute, mordoak,
zaute ostopean,
etzerate oraindik
jaři sasoyean.

Zerbait nai eta ezin
ba-degu iritxi
azeriak bezela
beař degu utzi.
Zaude, zaude, esanaz,
zaude or berean,
oraindikan etzera
jaři sasoyean.

(Ituřiaga).

MEADIA



Meak (Mineralak) bizirik ez dute, ez dira azten eta beti toki batean, berez, egoten dira.

Gaurko egunean ezagutzen diran meak bosteun bat dira.

Ezagunenak lau zatitan bildu litezke:

1 Añiak.

2 Menastak (Metalak).

3 Gatzak.

4 Erekayak.

Añietan dauzkagu Kareaña, Igeltsoaña, Auntzaña, Añbela, Sukaña eta beste asko.

Menastetan dauzkagu Buñia, Beruna, Urea, Zilaña, Zilañbizia, Buñigoña.

Gatzak bi erakakoak dira: Gatzaña eta Itsas-gatza.

Erekayetean daude Añikatza, Añoliyoa, Ikatz-lugaña (Antrazita).

NEKAZARITZA

Nekazaritzaren bidez luñak landu egiten dira gero uzta edef eta ugariak biltzeko.

Azi txiki batek ale asko eman dezazke, luñak beañ bezela ongaritu ta lantzen ba-dira.

Golde, atxuf, bostoftz eta gañerakoaz luñak iraultzen dira, gero aziak ereiteko.

Sega ta itayaz moztuketa egiten da.

Gari, olo, arto, artatxiki eta garagarak; babañun, aza, arbi, baratzuri, mats, ilañ ta gañerakoak aberastasun aundiak ekañi ditzazteke luña lantzen dutenai.

EKINTZA

Ekintza-itzak adiarazten dizkigu ola eta lantegietan gizonak egindako lanak.

Era askotakoak dira lan oek. Milaka gauz egin ta sortu ditu gizonaren buru argiak.

Ekintza'ren biotza indafa da. Indafa bea da ainbeste ta ainbeste traman-kulo edo makina igitzeko.

Arikatza ereaz ur-lufiñak ematen digun indafa asko erabiltzen bada ere, gauko egunean geyena zabaltzen ari dana tximistindaña da.

Tximistindañ-oletatik urutiko lantegi guzietara ari batzuen bidez zabaltzen da.

Oñ, nunai mendi guzietan ikusiko dituzute. Bañan ez ikutu. Ikutuezkero ilko ziñateke-ta.

Arigaña da gizonak, nai bezela, oñ-lako inda aundiak noranai eramateal

SALEROSKETA

Ez da naikoa gauzak eta gayak egitea. Egiten dituenak besteri saldu egin bea dizkio, eta beren bea danak erosi.

Oñtik etoñi da salerosketa.

Aspaldian gauz batzuek beste gauzaz ordaintzen ziran.

Bañan gero dirua soñtu zan, eta orain onen bidez ordaintzen dira.

Gizonak soñtu zituan ere neñiak, saltzeko gauzetan okerik izan etzedin.

Onela dauzkagu luzerarako:

Neurkia (metroa) eta bere aundiago ta txikiagoak.

Aztuntasunerako:

Aztaki (kilo) eta bere aundiago ta txikiagoak.

NOLA IBILTZEN GERAN



Gizona, berez, bi oñetan ibiltzen da. Bañan gizonak, laxteñago ibili nayeon, aspalditik erabili izan ditu Astoak eta Zaldiak.

Aspalditik ere soñtu zuen Gurpila eta, onen ondoren, gurdia.

Bañan gero ta laxteñago ibili nairik azkenengo urtietan Bultzi edo Trena sumatu zuen. Bai auñerapen aundiak e-



kañi dizkiola gizonari gauz edeñ oñek!

Gaurko egunetan oraindik aurrerago joanaz sumatu ditu Gurtariña edo Automobila eta Egazki edo Aeroplanoa.

Gurtariñak laguntz aundiak ekañi dizkigu eta Egazkiak, egan, txorien antzera, ibiltzeko bidea eman digu.

Itsasoan ere bi gauz arigari sortu ditu: Urpejantzia eta Urpeontzia. Lenbizikoaren bidez gizon bat urpean ibili ta lanean egin dezake aldi luzean. Eta bigarrenaren bidez ontzi osoa, bere gizon ta guzi, ordu osotan urpean ibili diteke.

Eta urgañean, lenbiziko ontzi txikietatik ia eña añako ontzizaretara iritxi da, gaurko egunean Ameriketara ere egun gutxietan, aste bete baño len, eramaten gaituztela.

BESTE AUÉRERAPENAK

Egunetik egunera gizona auéerapen beñiak sumatzen ari da,

Txikikuskiñaren bidez, begi utsez ikusi ezin ditezken xomorétxo txiki-txikiak, garbi-garbi agertzen zaizkigu, beste biziera beñi batzuek erakutsiaz.

Ainbeste zabaldu dan eta ainbeste erabiltzen dan Argazkintza edo Fotografia, dirudienez euskotaña zan Dageñe'k soñtua da.

Urútidazkiaren bidez guregandik oso urun dauden tokietara une berean idazkiak bialdu litezke.

Urútizkia oraindik ere añigariagoa da, gure itzotsa, ari batzuen bidez, oso urúтира eramanaz.

Bañan gauñko eguneko auéerapenik aundiena Arigabeko Urútizkia da. Onen bidez urútikoko eñietan itzegiten zaigun guzia, baita ere abesti, itzaldi, eresbatz eta beste ots guztiak, etxetik bertatik entzun genezake, bien bitañtean ari bat ere ez egonañen. Gauz añigariña!

KIROLAK



Euskotar batentzat kirolik edo jolasik ederena pelota-kirola da. Bera jokatu diteke era askotara: eskuz, xarez, saskiz, palaz, luzeran, erobotean, iristadan (eremontean)...

Euskotar guziok jolas au, gure-gurea eta eder-edeña dalako maite bear genduke.

Bañan beste kirol asko ere bada eta ezagutuenetako bat ostiko-jolasa da. Amaika mutilek beste amaikaren aurka jokutzen dute. Amaika oetatik bost dira aurrelariak, iru erdikoak, bi atzelariak eta bat atezaya.

Beste jolas atsegingarri bat mendi goituetara igotzea da. Soña asko sendotzen da ibilketa oek egiñaz. Mendigoizale izan zaitezte bada.

Beste kirol askoren artean daude lasterkeriak, igarilariak eta abar.

EDERTIAK

Gizona, berez, ederzale da. Jainkoak emana du gogo ori.

Aspaldi-aspalditik alaxen agertu du, eta Egipto'n, Gerkeñian eta Italia'n, batez ere, antziñako gauz eder arigari asko oraindik ikusi ditezke.

Margoerriak (Pinturak), Arantzerriak (Eskulturak), Eleerriak (Literaturak), Iraterriak (Arkitekturak) eta Ereserriak (Musikak), batez ere, gizonaren biotzak Ontasuna, Egia ta Ederetasuna beti maite izan dituela garbi agertzen digute.

EUSKO-ERESIAK

Ez da izango ludi guzian euskotara bezin eres-zaleagorik.

Jayo bezin laxter bere ama asiko zayo abesti gozoen bat abesten:

Aura egizu lotxo bat
emango dizut goxo bat,

aitak bai eta amak bi
zeruko Jaunak amabi.
Edo beste abesti eder au:

Itxasoetan
laño dago
Bayona'ko
alderaño.
Nik zu zaitut
maiteago
txoriak bere
umeak baño.

Eguzkia jeikitzen asten da; umetxoa
esna dago. Bere añai-arebak biltzen du-
te maite-maite egiñaz, eta abesten diote:

Binbili-bonbolo
sendo lo,
akeña Prantzia'n
ba'lego.
Akeñak kanta,
idiak dantza,
auntzak
danboliña jo.

Umea asi da (dio Donosti Aba er-
eslari euskotar ospetsuak); zortzi urte
ditu; bere kidakoakin inguruan eskue-
tatik batuaz abesten du:


Makila or eldu da
zakura jotzera,

Makilak zakuña,
zakurak otsoa,
otsoak akeña,
akeñak artoa,
añen!

Gure artotik
akeña ken,
añen!

Nork ipiñi ditzazke emen gure abes-
tien edertasun guziak? Ezin.

Ene ume maiteak, ikasi itzazute eus-
kel-abestiak. Berak dira zuen biotzar-
en samintasunak, zuen pozak, zuen
atsegiñak, ondoen azaltzen dituztenak.



Ene umetxoak! Idaztitxo ontan ikasi
dituzuten gauz onak gogoan artu itza-
zute, eta etzazutela beñere aztu jakin-
tzak eta, batez ere, Zintzotasunak gi-
zonari izenik onena ematen diotela.

AZKENA.

ÁRKIBIDEA.

	<u>ORLAK</u>
Jaungoikoa	5
Xabiértxo	6
Iziártxo	7
Garbitasuna.—Ikastolara.	8
Ikastolako atean	9
Irakúrtzea beára da	10
Gizabidea	11
Gizona.—Giza-Soña.	12
Soin-enbóra	13
Soin-adárak.—Ikusmena	14
Entzumena	15
Usaimena	16
Gozamena	17
Ikumena	18
Gogoa	19
Jantzia	20
Janariak	21
Ogia.—Ogirik ez da beñere bota beár.	22
Edariak	23
Iziártxo'k biotz ona du	25
Esaera zárak	24
Eregea ta tximuak	25
Etxea	26
Kun-kun	27
Eña	28
Basería.—Nere etxea.	29
Argia	30

Arğiña ta zurgiña	31
Alaitasuna. — Langintzak	32
Beste langintzak	33
Menastak. — Mendiak	34
Abendak. — Azia.	36
Zuaitza	37
Kabiak	38
Enara. — Ume erukitsua	39
Artzaya eta ardiak	40
Ura. — Uraren beaña.	42
Zakuña eta aragipuska	43
Ura zer eratan agertzen zaigun	44
Egaztiak	45
Esaera zafak	46
Urezko arautzak egiten zituen oloa	46
Añayak	47
Etxeko abere ta piztiak	48
Txitxaña eta txingufia	49
Erleak	53
Bi goldeak	53
Mutil zintzoa	54
Ez da asaretu beañ	55
Abereen kañaxi ta otsak	55
Adizkide bi eta artza	56
Lorea	58
Txori gaxoa	59
Mutil ona ta mutil gaiztoa	59
Sugea eta nekazaria	60
Batuketa	62
Kenduketa. — Ludia.	63
Udabería	64

	<u>ORIAK</u>
Basoa.—Udara	66
Egunsentiko pozak	68
Igarri egite	69
Udazkena.—Uzta biltzea.	70
Negua	72
Eguzkia	74
Egunsentia	75
Gizonaren bizia	76
Ilunabaña	77
Ortzea edo zerua	78
Ilargia	80
Zuaitzai ez kalterik egin	81
Eguraldi ona	82
Eguraldi txarra.	83
Ekaitza	84
Erekayak.	85
Burña	86
Aizkora eta kirtena	87
Garia	89
Aizea	90
Elufa	91
Izotza	92
Itsasoa	93
Ondartzan	94
Aztuntasuna	96
Belea eta sugea	97
Izkuntzak.—Euskalería.	98
Euskaleriaren ederatasuna	99
Euskal-eresia	101
Alkartasuna indarra da	102
Lantegiak eta Olak	103

	<u>ORIAK</u>
Sumendiak	104
Idazpena	105
Idaztia	106
Ludiaren zatiak	107
Elkano	109
Guziok lan egin beaŕ degu	110
Izadiaren iru zatiak	111
Abeldia	113
Abeldia, Bulaŕdunak.	114
Legoya zaŕez iltzen	115
Abeldia, Bulaŕdunak (Jaŕaipena)	117
Txoaeŕea eta erbia	118
Abeldia, Bulaŕdunak (Jaŕaipena)	120
Egaztiak	121
Txantxangoŕia	122
Naŕastariak.—Ur-luŕtaŕak	123
Aŕayak.—Aŕanoa eta Azeria	124
Abere ezuŕgabeak	125
Abel-landareak.—Soin-berak	126
Zomoŕtxoak (Mikrobiyoak).	127
Landaredia	127
Azeria eta matsak	128
Meadia	130
Nekazaritza.—Ekintza.	131
Salerosketa	132
Nola ibiltzen geran	133
Beste auŕerapenak	135
Kirolak.	136
Edeŕtiak.—Eusko-Eresiak	137

